

EDITORIALA

Jokin Apalategi, *Uztaro* aldizkariaren zuzendaria

Aldizkariaren ohiko zientzia-ataletan kokaturiko bost artikuluez gain, berrikuntza bat dakar *Uztaro* 61 honek, hots, "Tesien laburpena" deitu saila irekitzen dugu. Gure Euskal Herriko unibertsitateetan euskaraz defendaturiko tesiak aurkeztuko dizkiogu irakurleri, labur-labur bada ere. Hain funtsezkoa den ikerketaren arloan zer gertatzen ari den jakin dezagun, non zer tesi defendatu den adieraziko diogu irakurleri. Gaurdanik aitzinera, bada, tesiak egon ahala, tesien sail honekin aldizkariaren azken orriak beteko ditugu. Aipaturiko bost artikuluetatik bi, gaur egun emakumeak gizartearen dituen aukera-desberdintasunak ikertuta, berdintasun-bideak proposatzera datoz. Nazioartean sakoneko esperientzia eta eredu direnen berri eman ondoren, zehaztasun zorrotzez beteriko aurrerabideak iradokitzen dira. Gure irakurleak preziatuko dituelakoan nago.

Banan-banan aurkeztera igarota, "Emakumeen boteretzea: saiakerak eta zailtasunak" artikulua datorkigu lehenik. 1995. urtean Beijing-en egindako Emakumearen Mundu Konferentziaren ondotik, berdintasuna lortzearren gobernuek aurkeztutako estrategia aztertzen zaigu: boteretzea. Euskaraz *empowerment* nola itzuli aztertzean hiru kontzeptu lehian leudeke: boteretzea, jabetzea eta ahalduntzea, alegia. Artikulu honen egileek boteretzea erabiltzearen alde egin dute. Justifikatzeko adierazten zaigu nola banakoaren hala kolektiboaren mailan aurrera eramaten den barne- eta kanpo-eraldaketarako proiektzioa daukala boteretzeak. Kontzeptuaren garapen historiari so, XVII. mendeko ingelesezko testuetan topatzen da jada. XX. mendearen hirurogeiko hamarkadan Amerikako Estatu Batuetan aurrera eramandako mugimendu sozial garrantzitsu baten hausnarketa eta ekintzaren oinarria izan zen. Emakume eta Genero Garapena ikerketekin harreman zuzena dauka. 1985. urtean Nairoibiko Hirugarren Mundu Konferentziarako Sen eta Grown-ek prestatu zuten testuan ageri da kontzeptua. Azkenik, 1995. urtean Beijing-en ere jaso zen. Gaia zehaztu ahala, boteretzea, emakumeek dituzten behar praktikoa eta estrategikoa jendartearen duten estatusarekin harreman zuzenean daudela adierazteko erabiltzen da. Boteretzea banakakoa eta kolektiboa izan daiteke. Zenbait autorek, hala ere, uste dute banakako boteretzea boteretze kolektiboa lortzeko elementu beharrezkoa dela. Boteretzeak aldaketa eta ekintza kolektiboa, biak barne hartzen ditu. Lau jokalekutan bereziki adierazten da: kognitibo, politikoa, ekonomikoa eta psikologikoa, hain zuzen. Kontzeptuarekin zailtasun berrizatuak daude aipatzen delarik botere moduak historikoak direla, eta kulturalki baldintzatuak daudela. Botereaz ari garelarik dominazio-harremanak baina baita desafio eta erresistentzietarako joerak edota horiek itzaltzeko kontrolak ere ageri zaizkigu. Beijing-etik hona Mendebaldeko gizarte-erakundeetan boteretzearen kontzeptuak orokortzera egin du. Ikuspuntu feministatik boteretzea banakoari gertatzen zaion zerbaitenez, ez dago ongi ikusia estatuaren plangintza-agentziek emakumezkoen beharrak defini ditzaketelako ideia. Emakumeen boteretzerako zenbaitek hiru betebeharrak aipatzen ditu: baliabideak, agentziak eta emaitzak, alegia. Artikuluaren puntu horretan boteretzearen definizioen laburpen-koadroa proposatzen da: helburu estrategikoa eta onurak; banakako ikuspuntuaren

ñabardura; erabakiak hartzeko sarreraren ñabardura (nola antolaketan hala mugimenduan); emakumeen interesen eta beharren presentziaren ñabardura. Finen, Emakundek bultzatutako IV. Berdintasun Plana aztertzen da. Orekatu beharreko botereen beharraz dihardu, emakumeak lortu beharreko lau autonomia mota izendatzen direlarik: fisikoa, politikoa, soziokulturala eta ekonomikoa. Gainera, kontzeptuaren dimentsioak gogorarazten dira: banakoa-kolektiboa eta lokala-globala. Berdintasun Planean, horrez gain, emakumeari parte-hartze sozial eta politikoan bultzada dakarkioten lanerako zehar-lerroak barneratzen dira. Planaren planteamendu orokorrak banakako boteretzea bultzatzen du; boteretze kolektiboa, aldiz, lanerako zehar-lerroetan bakarrik ageri da esplizitu. Planean baliabideen eskaintza da nagusi. Agentziena neurri txikiagoan. Eta ez dago elementurik emaitzak bermatzeko. Boteretzea, esaten zaigu ondorio gisa, «partaidetza kritiko eta aktibo gisa ulertu behar da».

“Aurrekontu publikoek sexurik ote dute? Genero-aurrekontuen osagai eta erronka nagusiak” artikulua, azken bi hamarkadetan, aurrekontuen ildo honetan sarturik mundu osoan hainbat gobernu egindako esperientziak aztertzeri dator. Mugimendu feministen eraginez, 60ko eta 70eko hamarkadetan emakumeen aldeko ekimen positiboen beharra nabarmentzen hasi zen. 1981ean CEDAW ituna indarrean sartu zen eta geroztik emakumeen giza eskubideak bermatzeko onarturiko nazioarteko itunik garrantzitsuena dela adostu da 2005ean. Genero-zeharkakotasuna bultzatu da 1995ean NBEtik eta 1998an Europako Kontseilutik. Hau da, politika publiko guztietan generoa txertatzeko bideak zabaltzeko behar direla aldarrikatu zuten, hots, ez dagoela printzipioz genero-arekiko politika neutroa. Europako Kontseilua kezkaturik agertu da adierazi duenean ezin dugula espero genero-zeharkakotasuna “naturaltasunez” aplikatzen den estrategia izatea. Eta zerbait argi badago politiken genero-zeharkakotasunaren arloan aurrekontuen analisiak duen garrantzia da. Europako zenbait estatutan genero-aurrekontuak erabiltzeko balizko metodologiak eta tresnak aztertzen hasi dira. Are gehiago mundu mailan esperientziak lantzen dabilta. Estatu aitzindarien artean Australiako gobernuak dago buruan, 1984az gero indarrean baitauka egiteko modu hori. 1993an Kanadan ere jarri zen martxan. 1994an Hegoafrikan eragin handia izan duen ekimena bultzatu zen. Lehendabizi gobernutik kanpo, eta ondoren, gobernu barrenetik. 1995ean Commonwealth-ek egindako adierazpenetan aurrekontuak eremu pragmatikoak lirateke politika makroekonomikoetan genero-dimentsioa txertatzeko ahaleginetan. Hala ere, izandako esperientziei so, alde oso nabariak ageri dira. Eta bestela ezin izan zitekeenez emaitzen aniztasuna gauzatu da. UNIFEM eta UNDP erakundeek ere bultzada eman diote ekimen mota honi laguntza tekniko eta finantzarioen bidez. Genero-aurrekontuen kontzeptuak eta helburuek ere bilakaera bat ezagutu dute. Hasiara batean “emakumeen aurrekontuak”, geroago “genero-aurrekontuak”, “genero-auditoriak” eta baita “genero-sentsibilitatea txertatzen duten aurrekontuak” ere deitu izan dira. Azterketak egin ahala ikusi da aurrekontua ez dela genero-arekiko neutroa. Zuzenagoa litzateke esatea “genero-arekiko itsuak” izan direla oraindainokoa, aurrekontu publikoek ez baitituzte kontuan hartzen, besteak beste, emakumeak ordaindu gabe egindako lanak. Aurrekontu publikoak diru-sarrerak eta gastu publikoak bereizten dituen kontabilitate-txosten baten formatua hartzen duenean, genero-aurrekontuak alde biak elkarturik aztertzea beharrezkotzat jotzen du. Genero-aurrekontuak egiteko

orduan komeni da egitasmoez osaturiko aurrekontutik abiatzea, horrela errazagoa baita egitarauak dituzten helburuak eta ekimen zehatzak aztertzea. Komeni da, orobat, egitarauak exekutatu aitzinetik aurrekontu-txostena aurkeztean genero-adierazleak bertan agerraraztea. Bigarren helburua, berriz, generoen arteko berdintasuna bultzatuko duten politikak sustatzean datza. Nazioarteko esperientzien eta adierazleen azterketa igarotzean berehala jabetzen gara generoa txertatzeko ahaleginak konplexuak izan direla. Garbi gelditu dena da tokian tokiko errealitateak abiatu beharra dagoela. Hori bai, bi jakintza-eremu batu behar dira: genero-bereizkeria batetik, eta finantza publikoak, sektore publikoaren funtzio-namendua, dinamika eta egitasmoak. bestetik. Genero-aurrekontuetan gehien erabilitako tresnak aipatzen dira ondotik: Australiako kasua, Hegoafrikakoa eta Diane Elson-ek proposaturikoak, alegia. Ondorioz esan dezakegu garbi dagoela tresnen zerrendak aberatsak eta konplexuak izan direla, eta izan daitezkeela. Baina azpimarragarria ere bada aplikatu nahi diogun errealitateari egokitu beharra. Genero-aurrekontuen esperientzietako partaide nagusiak aipatzen dira ondotik. Genero-aurrekontuak bultzatu dituzten ekimen gehienetan gizartearen parte-hartzearen garrantzia nabari da, bai sortzen diren arazoak konpontzeko bai denboran ekimena luzatu ahal izateko. Eragile nagusiei so, hiru eratakoak izan dira mundu mailan: gobernuen ekimenak; gobernu-egituratik kanpo sustaturiko ekimenak, eta gobernu-egituratik kanpoko eta parlamentarien ekimenak gurutzatzen dituztenak. Azkenik, lorpen eta erronka nagusiak etorkizunari so laburbiltzen dira. Esaldi batean esanda, ez dago estatu bakar bat ere bere aurrekontuan genero-arekiko sentikortasun osoa erakusten duenik. Hiru erronka aipatzen dira. Lehena, datu estatistikoak lortzeko sistema iraunkorra ezartzea. Bigarrena, aurrekontuen ezarpena. Hirugarrena, burokraziaren mentalitatea aldatzea, hots, genero-berdintasun-arekiko konpromisoez gain gardentasunaren eta gizartearen parte-hartzearen aldeko jarrera bultzatzea.

“Euskal gizaki autoalternatiboa sozioekonomian (II. atala)” artikuluak, merkatua, esku-hartze administratiboa, funtzio sindikala eta kapitalaren mugimenduak alde-ratzen ditu teoria kapitalista, sozialismo eta euskal gizaki alternatiboaren ikuspe-gietatik so. Teoria kapitalistaren esanetan, merkatu askeak produkzio-askatasuna bermatzen du, baina administrazioaren esku-hartze ezaren ondorioz birbanaketa oztopatua izatea da egiten zaion kritika. Kontsumoaren hautaketa, gehienetan, gizakiok sortu berri ditugun beharren arabera gauzatzen da. Bestalde, eskaera eta eskaintzaren legeak ez du merkatua arautzen. Multinazionalen kasuan ageri denez, jabetza soziala esku pribatuetara pasatzeko ahalegina da. Merkatu kapita-listak jabetza pribatuak behar duen esparru ekonomikoa osatzen du. Era horretan pribatizazioa arlo guztietan sartzen da. Merkatu sozialista gizartearentzako oinarrizkoak diren produktuen bermean justifikatzen da. Bi arazo sortzen ditu: pertsonen motibazio falta, eta herri azpigaratuen baitan ezarritako mendekotasun-egoera iraunkortzea. Gainera berrikuntza-maila eskasa izatea eragiten du. Aldiz, onartu behar da merkatu sozialista zentralizatuan oinarrizko produktuen eta beste hainbaten birbanaketa bermatzen dela. Esperientzia autogestionarioa deitzen dena sistema kapitalistaren barrenean integraturiko azpisistema bilakatzen da. Horrela, MCC sistema neoliberalaren barrenean emandako azpisistema kapitalis-tatzat ageri zaigu. Esperientzia autogestionarioa merkatu sozialistaren barrenean gauzatzen delarik, denon jabetza eta estatuaren jabetza nahastean, zentzu

autogestionarioa galtzen da. Bereizi beharreko kasuak badira, hots, Espainiako Bigarren Errepublikan jazo zen esperientzia anarkista, zeinak txanpon-sistemaren berrikuntza ekarri baitzuen trukea jorratuz, eta Kubako esperientzia autogestionarioa. Kuban estatuaren nekazaritza-ustiapenak ekoizpen kooperatiboaren funtsezko unitate bihurtu dituzte. Kooperatiba berri horiek indibidualtasuna eta zentralizazioa onartzen dituzte. Baina nola defini genezake autoalternatiba izan nahi duen esperientzia autogestionario bat? Mugak merkatuetan bermatu beharko lirateke eta ez kontsumoan. Ekimen pribatuak autoestima pertsonala eta soziala bermatzeko oso baliagarriak diren balioak eskaini eta naturari errespetua eta guztion onerako diren eskakizunak betetzea jomuga izan beharko luke. Hori lortzeko, euskal nortasunaren ikurren ikuspegitik, auzoko sistemari jartzen zaio arreta. Auzolana betidanik ezagutu den auzokideekiko elkartasuna bultzatzen duen ekintza da, aldiari aldiz beharra duten pertsonen laguntza eskaintzeko. Esku-hartze administratiboa aztertzen da jarraian. Administrazio neoliberalak diru publikoa modu pribatuan inbertitzeagatik nabarmentzen da. Teoria liberalaren ustez, estatuaren parte-hartzea ordena publikoa eta ekoizleen produkzio-askatasuna bermatzera mugatu beharko litzateke. Ez da zerga zuzenetan oinarritzen, zeharkakoetan baizik. Estatuaren esku-hartzea teorikoki ekidin nahi duenean, aberatsenen sektorearen onurarako jarduten du. Administrazio sozialista zentralizatuak herritar guztientzako gutxieneko sozioekonomikoak bermatzea du helburu eta banakoaren ekimenei oztopoak jartzen dizkie. Ekipo-ondasunak eta behar minimoak betetzea lehenesten du eta ez kontsumoa. Nazio-monetaren balioa murriztu eta inflazioa handitu egiten da. Administrazio autogestionariodun esperientzietan, kapitalismoaren barrenean gertatzen direlarik, estatuaren administrazio politikoa onartzen da autonomia administratiboaren bidean talde korporatiboak sortuz. Kooperatibismotik korporatibismora igarotzen da horrela. Esperientzia autogestionarioa sistema zentralizatu batean gertatzen delarik, berriz, pertsonen arteko borondatezko elkartasuna erlatibizatzen da. Beste hainbat esperientzia autogestionarok, ordea, lortu dute administrazioaren esku-hartzea baztertuta "askatasun-guneak" sortzea. Galdera bat egiten da puntu honetara helduta: posible al da alternatiba garatzea administrazio zentralizaturik gabe? Euskal nortasunaren ikurrek sistema autogestionario batean izan duten eragina aztertzea igarotzean, kofradia edo ermandadeekin aurkitzen da. Kofradia eta ermandadeen sistemaren eta antzinako euskal kultura komunitarioaren artean jarraipena ageri dira. Gaur egungo euskal administrazio mutualistari ez zaio ikusten eraginkortasunik. Funtzio sindikalak aztertzean beste behin ere ikuspegi desberdinak daude. Kapitalismoak badaki zeintzuk diren arriskutsuak: inolaz ere ez korporatiboak, bai, ordea, klase-sindikatuak. Sistema sozialistan, berriz, sindikatua boterea duen talde politikoaren interesak defendatzen saiatzen da. Esperientzia autogestionarioetan, iraultza-prozesu baten barrenean eraikitakoa bada sindikatua, garrantzi handia hartzen du sindikatuaren irudiak. Euskal nortasunaren ikurren garrantzia sindikatuen arloan esentziala da ekonomia indibiduala lurralde naturalen eta denen arteko eraketaren barrenean jaso eta ulertzeko orduan. Kapitalaren mugimenduak paradigmeztan ageri dira. Kapital industrialak finantza-kapitalak gainditu izan du eta sistema kapitalistaren ikur aurrerakoi bilakatu da. Horrela planetaren egonkortasuna arriskuan jartzen ari da. Hurrengo hamarkadetan ongizatea lortzeko giza errekursoak bermatuko dira. Autoalternatibak espekulazioa baztertu eta jabetza pribatua ukatzen du uraren, airearen edo lurraldearen kasuetan.

“Intonazioaren ezaugarriak emozioen pertzepzioan lau hizkuntzatan” artikulua emozioen identifikazioan intonazio hutsak daukan garrantzia frogatu eta oinarritzko maiztasuna eta energiaren eragina neurtzen ditu. Horretarako, lekukoek dakizkiten hizkuntzetako esaldi arruntak eta lekukoek ez dakizkiten hizkuntza bi aukeratu dira. Beste behin ere ikertzaileak hitzun arrunten datuak erabiltzea pribilegiatzen du. Lana hiru zati nagusitan zatitzen da. Lehenean, pertzepzio-testa egin ahal izateko esaldien ezaugarri akustikoak aztertzen dira. Bigarrenean, pertzepzioaren gaineko emaitzak biltzen dira. Hirugarrenean, ondorioak atera eta hurrengo lanetarako proposamenak egiten dira. Esaldien deskripzio akustikoak neurtzeko lau hizkuntzaren esaldiak erabili dira. Hizkuntza ezagutzen ez denean, emozioa identifikatzeko intonazioa da adierazgarri bakarra. Hizkuntza ezagutzen denean, errazagoa da norberaren ereduaren interferentzia gertatzea. Emozioak haserrea, poza, beldurra eta tristura izan dira. Euskaraz parametro nagusia oinarritzko maiztasunaren rangoa den artean; gainerakoetan izari guztiek eragiten diote emozioen intonazioari, batez ere luzerak eta gino apalagoan energiak. Gaztelaniaren kasuan gailur prosodikoa silaba batetik bestera alda daitekeela ere ikusi da. Oinarritzko maiztasunaren ranguari dagokionez, hizkuntza guztietan ez dira emozio guztiak berdin gertatzen. Tristura beti da maiztasunik apalenean erakusten dena, baina gainerakoak ordena desberdinean gertatzen dira. Ondotik pertzepzio-testa aplikatzen da. Euskararen kasuan, akats handiena rangoa hurbilen dauden emozioetan gauzatzen da, poza izanik txartoen identifikatzen dena. Entzuleek sentzibilitate handiagoa erakutsi dute energia eta luzera aldaketekin oinarritzko maiztasunekin baino. Gaztelaniaren kasuan akatsak banatuago daude euskaraino baino; hala ere, beldurra-poza da emaitzarik altuena daukana. Italiaren kasuan tristura da ondoen identifikatu den emozioa; txartoen, ostera, beldurra. Rangoari dagokionez, beldurra eta poza oso hurbil agertzen zaizkigu. Galegoaren kasuan, ondoen identifikatu den emozioa haserrea izan da eta txartoen beldurra. Hala ere, desberdintasunak oso banatuta ageri dira. Hizkuntzen arteko aldeei dagokionez, adierazi behar da sentzibilitate berezia dagoela luzera eta energia aldaketekin eta askoz apalagoa oinarritzko maiztasunekin. Ondorioak ateratzekoan eta hurrengo ikerketarako proposamenak egitekoan bi maila bereizi behar dira: batetik, hizkuntzen ezaugarri akustikoen araberrakoak eta, bestetik, pertzepzioaren araberrakoak. Deskripzioen ondorioz esan behar da tristura dela gehien aldentzen den emozioa hizkuntza guztietan. Hala ere, kontuan izan behar da emozioen produkzioan eragile pertsonalak egon daitezkeela. Hizkuntza bat ezagutzen ez denean enfasia da identifikazio-neurri bakarra. Emozioen identifikazioan beste faktore batzuk ere agertzen dira: lexikoak, sintaktikoak eta, batez ere, pragmatikoak. Azken oharra: pertzepzioaren ikuspuntutik, neurtu beharko litzateke zein izan diren ama-hizkuntzaren eta ikas-ereduaren eraginak lortu diren emaitzetan.

“Zapatismoaren ekarpen ideologikoa” artikulua unean uneko erabakiek eta, beraz, esperientziek egiten dutela mugimendua onartzuz gero, mugimendu horren nondik norakoak eta ulermenerako gakoak agertzen dizkigu. Ibilbidearen bi puntu garrantzitsu aipatzen dira: 1994tik gaurdainokoa gertakari nagusietan, eta ekarri dituen berritasun eta ezaugarri ideologikoak. Borroka hau askok postmodernista definitu dute. Hartu kontuan haien eslogan batek dioena: «egia eta surik gabeko armada bat gara». 1982an Mexiko krisi sakon batean sartu zen. Irteera bila atzerriko inbertsioei ateak ireki zizkieten era masiboan, pribatizazio-politikak bultzatu

eta babes historikoak ezabatu zituzten. Chiapas Mexikoko estatu marjina-
tariako bat zen garaian. Giro horren barrenean, 1994ko urtarrilaren 1ean zapatisten
altxamendua gertatu zen. Etnia guztien fronte bakarra bilatu zuten hasiera beretik.
San Cristobaletik hasi eta okupazioak burutu zituzten. Haien zilegitasuna eta
legaltasuna adierazi nahirik, Mexikoko Konstituzioaren 39. artikulua orotarazi
zuten: herriaren nahia betetzen ez duten gobernuen aurka altxatzeko herriak duen
eskubidea, alegia. Gobernuak errepresioarekin erantzun zien. 1994an Mexikon
egon ziren hauteskondeei boikotarekin erantzun zien zapatismoak. Gobernuarekin
lehen bilera bat lortu zuten Aguas Calientes deitu tokian eta gizarte zibila eraman
zuten eztabaidara. Komunitate zein nazioarteko hainbat talderekin egon ondoren,
hitzaren aldeko hautua egin zuten. San Andreseko akordioan eskubide eta kultura
indigenaren alde egin zuten. 1996an Lacandonako IV. adierazpenarekin FNLZ
erakundea sortu zuten. Barne-antolaketa murgildu ziren. 2005ean *Beste
kanpaina* deitutakoarekin bide berri bat ireki zuten. Hasteko, FNLZ desegin eta
jendartean fronte zibil indartsu bat sortzeko estrategia politikoari ekin zioten. *Beste
kanpainak* ere Mexiko guztiko eragile sozial, politiko eta kulturekin batzera
eraman zituen. Politika egiteko beste era bat ere bada. Hauteskundeetako
iruzurrarekin topo egin arte. Orduan zapatisten ekimenak aldi batez itzalita bezala
geratu ziren. Baina aldi berean zapatismoaren ekimenen beharra inoiz baino
nabarmenago utzi zuen gertakarien kronikak. Zapatismoaren ideologian murgil-
tzen bagara berritasunak aurkituko ditugu. Botere forma guztiak ukatzen dituzte.
Neoliberalismoari kritika sakonak egiten dizkiote. Mexikoko estatuaren inguruko
kritikak ere ez dira motz gelditzen. Bide horretatik uler daiteke hauteskondeei eta
instituzioetan parte hartzeari egindako boikota. Gogora dezagun adierazia dutela
«dena denontzat, ezer ez guretzat». Hala ere, zapatistek beharrezkotzat jotzen
dute euren integrazioa nazioan. Boterea baztertzen dute, zeren botere-borrokak
boteretsuen metodoak erabiltzera eramaten baikaituzte. Leku bakoitzean jartzen
dute arreta, lokalismoan eta tokiko ezaugarrietan, mundua aldatzeko metodo
hoberena dela uste dutelako. Betiko gerrillatik eta hasieran eurek ere hartutako
bidetik urrundu dira. Horretarako komunitatean oinarritutako demokrazian sinesten
hasi ziren, eta sinesmen hori oinarritzko printzipio bihurtu. Tradizio komunaletik jaso
dituzte euren balioak. Demokraziaren eta iraultzaren arteko lotura sendoa egiten
dute, iraultzailea den ezkerri demokrazia erakusteko eta demokraziaren bilatzai-
leei iraultza seinalatzeko. EZLN, gaur, bere barreneko egituretan malgutasunak,
errotazio-sistemak eta abarrek konfiguritzen dute. Erabakigune nagusia komu-
nitatea daukate. Garrantzitsuena ez da eraginkortasuna lortzea, baizik eta gauzak
printzipioekin bat datozela egitea eta bitartean harreman-moduak aldatzea, kultura
politikoa eraldatzea, alegia. Bi arau zorrotz ere badituzte: batetik, jabetza-eskubi-
deari uko egiten diote. Bestetik, bulego politikoa edukitzeari uko egiten diote.
Zapatisten ekarpen kontzeptualak ere aipatu behar dira. Holakotzat dauzkagu:
lana, lurra, aterpea, elikadura, osasuna, hezkuntza, independentzia, askatasuna,
demokrazia, justizia eta bakea interpretatzeko ikusmoldeak. Estatuaren hez-
kuntza-sistema gaitzestetik hasten dira. Ez omen du non bizitzen eta pentsatzen
ari garen irakasten. Paolo Freire-ren hezkuntza-eredu alternatiboan oinarritzen
dira. Ideologiari dagokionez, euren diskurtsoa ez dute unibertsal, absolutu eta
baliogarri zein guztiz bukatuzkotzat jotzen. Oinarrian esperientziak eta norberaren
bizipenak egon behar dira. Garrantzia norabideak izango du, bideak, eta ez
helburuak. Praktika eta bizia bera izango dira mugimenduaren oinarriak. Hiztegi

iraultzaile tradizionala erabat baztertu dute. Duintasuna, diotenez, politikoaren eta pertsonalaren arteko banaketaren ukoa litzateke. Gizarte zibila izango da eraldaketa demokratikoaren gidaria. Justiziak ez luke zigorrik eza esan nahiko, baizik eta bakoitzari bueltatzea merezi duena. Demokrazia, berriz, pentsamolde guztiak akordioetara ailegatzean lortuko litzateke. Zapatistak ez dira identitatea aipatzean abertzaletasunean oinarritzen. Ezberdinen arteko borroka komuna bilatzen dute, borroka hori mundu osora zabaltzeko. Haien borrokan mundu guztiko baztertuek aurki dezakete tokia. Erlijioa guztiz sustraitua daukate zapatistek. Armen erabilera oso txikia izan da. Emakumearen papera oso garrantzitsua da zapatismoan. Iraultza zapatista ez zen hasi 1994an, baizik eta emakumeek euren legea egin zutenean. Lege horrek emakumeen zapalkuntzatat ulertzen ziren tradizioak uxatu zituen. Gizon askok alkoholera jotzen zuen eta ondorioz indarkeria erabiltzen zuen emakumeekin. Emakumeek lortu dutena da esparru propioak eta borroka propioak izatea mugimendu zapatistaren barrenean. Noiz ama bihurtu erabakitzeko eskubidea eta, beraz, antisorgailuen erabilera funtsezkoak izan dira. Baina baita umeen hezkuntzaren kontrola ere. Familiaren egituren neurketa ere hor dago. Emakumeek zapatista bihurtzean euren komunitateko legeak gainditzen dituzte, eta horrela askatasun osoa lortu. Hala ere, matxinatuen eta komunitateetan bizi direnen artean alde handiak daude gaur oraino. Sinboloen erabilera zabala egiten du zapatismoak. Buru-estalkia erabiltzean, misterioak lagunduta, arreta bereganatzea lortu dute. Borroka anonimoa dela adierazi nahi izan dute, herorik gabekoa, alegia. Erabiltzen dituzten irudi eta izenak ere esanahi betekoak dira. Horrela gertatzen da *Caracol* izenarekin. Mundu guztira irekitako oihartzuna adierazi nahi dute. Matxinadaren esanahia ere berreskuratu nahi izan dute zapatista deituraren bidez. Bestalde, hasieratik arreta berezia jarri zioten komunikazioaren esparruari. Interneten erabilera iraultzarekin gurutzatu dute. Hala ere, hor dira hileroko aldizkariak, DVD edota filmak eta *Insurgente* deritzon irratia. Komunitateak eurak informazio-sortzaile bilakatu dira. Gobernu Kanpoko Erakundeek eta hedabide independenteetako kazetariak ere garrantzia izan dute. Kanpotik datorrenari euren interesen arabera bakarrik irekitzen diote atea. Hizkuntzen erabilera desberdina ere azpimarragarria da. Zapatismoarekin praktika iraultzaile berri baten aurrean gaude. Bestalde, milaka eta milaka indigenei bizitzeko modu alai bat eskaini diete. Mundu osoko gizakiok eduki ditzakegun zapalkuntza guztiak gainditzeko ilusioari atea ireki diote. *Pentsatu globalki ekin lokalki* proiektua gauzatu dute.

